



Ebazpena, 2019ko ekainaren 26koa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, 2019ko ekainaren 5koa Ebazpenean egindako akatsa zuzentzen duena. Azken Ebazpen honen bidez ondoren zehatutako deialdiko eskerak behin betiko ebazten dira. Deialdia hau da: 2018/2019 bigarren zikloko haur hezkuntzako, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzetarako deialdia.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 109.2 artikuluan, zera esaten du: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

2019ko ekainaren 5eko Ebazpena, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, eskola-garraiorako diru-laguntzen deialdiko eskaerak behin betiko ebazten dituena, berrikusi eta gero, Bizkaiko Lurralde Historikoko bi onuradunen artean akats materiala gertatu egin da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko banan-banako dirulaguntzen emandako zerrendan hurrengo hau esaten zen:

Tutorea	Ikaslearen			Ikaslearen ikasketak		Zenbatekoa
	Ikasleak			Heziketa-malla	Kurtsoa	
NAN / AIZ	H.N.A.	NAN / AIZ	Espedientea			
78896400Y	807184E	79431261W	AI-18-48-000386	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	2	227,42
79001244Q	807172A	79076811M	AI-18-48-000157	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	2	304,00

Akatsa zuzendu ondoren, aipatutako zerrendan zera esan beharko luke:

Tutorea	Ikaslearen			Ikaslearen ikasketak		Zenbatekoa
	Ikasleak			Heziketa-malla	Kurtsoa	
NAN / AIZ	H.N.A.	NAN / AIZ	Espedientea			
78896400Y	807184E	79431261W	AI-18-48-000386	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	2	304,00
79001244Q	807172A	79076811M	AI-18-48-000157	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	2	227,42

Alpatutako akats materialari buruzko araudia eta dagokion beste araudi guztia kontuan hartuta, eta eman zaidan eskudantzia betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Bizkaiko Lurralde Historikoan emandako banan-banako diru-laguntzen zerrenda zuzentzea.

Bigarrena: <https://euskadi.eus> web-guneko iragarki taula elektronikoko argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena: behin betiko Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahalko zaio Hezkuntza sailburuari hilabeteko epean, <https://euskadi.eus> web-guneko iragarki taula elektronikoko ebazpen honen berri ematen den hurrengo egunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 26a

Olatz Garamendi Landa
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea

